

ARABAKO LAUTADA

ZURE ALDE BASATIA
AGERIKO EGIN



ARABAKO LAUTADA ESKUALDEKO TURISMO BULEGOA
Mayor, 8 - 10200 Salvatierra-Agurain (Araba)
Telefono eta fax: 945 30 29 31
e-mail: 2turismo@arabakolautada.eus



alava turismo. eus **EUSKADI** BASQUE COUNTRY  ARABAKO LAUTADA KUADRILLA CUADRILLA DE LA LLANADA ALAVESA  lautur lautadako turismoa

GARAIOKO PARKEA

MERDIXURKO BEHATOKIA

 LURRALDEA NATURALA

ARABAKO LAUTADA



URIBARRI-GANBOAKO URTEGIA

Informazio orokorra. Hegaztiak parkearen erakusgarri nagusia dira. Bertan ur-hegazti ugari dago, eta ur eta lur ekosistemaren egoera onaren adierazle dira.

Irakizunak. Ibilide autogidatua egin dateke bertan, oinez zein bizikletaz, parkearen hainbat ekosistemaren inguruko interpretazio-panelen laguntzaz. Garaioko Informazio Bulegoan bizikletak alokatzeko dira.

URIBARRI-GANBOAKO URTEGIA
Euskal Herriko urtegiarik handiena da, 146 hm³ko edukiera du, eta hiruro urtegi biltzen dituen sistemaren parte da. Hiru funtzio ditu: Gasteiz eta Bilbo urez hornitu; Zadorra ibaiaren ur-emaria erregulatu eta aisialdi eremurako erabilera.

MENDIXURKO PARKE ORNITOLOGIKOA

Mendixurko herritik gertu Parke Ornitologikoa daukagu, Uribarri-Ganboako urtegiko hegoaldeko adar batean kokaturik dagoena. Nazioarteko garrantzia duen Ramsar Hezegune moduan izendatua dago eta Natura 2000 Sarearen parte ere bada.



Azaleko uren eremu bat da, naturalizazio prozesu bat izan duena, ur-landareztarantz eta ur-animalientzat garrantzi handiko eremua bilakatuz. Espezie ugari dago, eta hori dela eta behaketa-rako eremu ezin hobea da.

Bi bidezidorrek hurbiltzen gaituzte behatokieta-
ra: Biributxi, Los Buceadores behatokira hurbiltzen gaituena; eta Errekabarri, Los Carboneros behatokira hurbiltzen gaituena.

GARAIOKO PARKE PROBINTZIALA

Garaio Parke Probintziala Garaio antzinako herritik oso gertu kokaturik dago, Uribarri-Ganboa urtegiko urertzean. Foru parke honek 116 hektareako penintsula bat hartzen du, urtegiaren barneratzen dena Zadorra ibai- ahoaren inguruan.



Bandera urdina duten bi hondartzak ditu, Iparraldeko Garaio eta Hegoaldeko Garaio, eta hauek zuhaitz eta aisaldi eremuz inguraturik daude. Ekaina eta abuztua bitartean sorosle zerbitzua dago, baita dutxak eta mugikortasun urria dutenentzako bainu-plataformak.

URIBARRI-GANBOA URTEGIKO

BALIABIDE GUZTIAK EZAGUTZEKO IBILBIDEAK

Urtegiak seinalatutako hainbat ibilbide ditu:

- Urtegi osoari bira: 44,6 km-ko ibilbide zirkularra
- Urtegi iparraldeko ibilbidea: 31,8 km-ko ibilbide zirkularra. Landako parketik abiatzen da.
- Urtegi hegoaldeko ibilbidea: 18,8 km-ko ibilbide zirkularra. Garaio eta Azua batzen ditu. Mendixurko Parke Ornitologikora hurbiltzen gaitu.
- Garaio Parke Probintzialaren ibilbidea: 5,5 km-ko ibilbide zirkularra, 6 geraleku dituen. Ibilbide honen bitartez ere, Mendixurko Parke Ornitologikora hurbil gaituzke.

Ibilbidea Vitoria-Gasteiztik ere has daiteke (Gamarratik), Vasco Navarro Ibilbide Berdea jarraituz.



GARAIOKO INFORMAZIO BULEGOA



Garaio Plz. 1 / TLF: 695 78 24 98
Karabanentzako doako bi aparkaleku daude:
Egunez: parkearen barruan 8:00etatik 23:00etara.
24 orduko aparkalekua: Parkearen sarreraren ondoan kokaturikoa

MENDIXURKO PARKE ORNITOLOGIKOA



Sarrera doan urte osoan.